Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3968

435/2009 DEKRETUA, ekainaren 30ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari atxikitako Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoko Zuzendaritzako kargudunen zerrenda onartzeari buruzkoa.

Zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritzetako kargudunen estatutu pertsonala arautzen duen otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuko 3. artikuluak, honela dio: Jaurlaritzaren Kontseiluak, zuzenbide pribatuko ente publikoak atxikita dituzten sailetako titularren proposamenez, ente horietako zuzendaritzetako kargudunen zerrenda onartuko ditu dekretu bidez.

Dekretuan aditzera emandako asimilazio edo ekiparazio hori irizpide objektiboak ezarriz gauzatzen da, zeintzuk aukera emango bailukete Administrazioko goi kargudunen balikiodeak diren direktiboak identifikatzeko ente bakoitzean.

Aipatu artikuluak, bestalde, proposamenak honelaxe prestatuko direla ezartzen du: erabaki bidez egingo dituzte, urtero, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako organo artezkariek edo administrazio kontseiluek; eta, erabakietan bertan, dekretu haren ondorioetarako zuzendaritza-taldekidetzat zeintzuk jotzen diren zehaztu beharko da.

Gaur egun, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareko zuzendaritza kargudunen zerrenda azaroaren 15eko 385/2005 Dekretuan dago jasota (2005eko azaroaren 24ko EHAA), euren artean Enteko zuzendari orokorrarena eta lehendakariorde betearazlearena.

Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareko ente publikoaren Administrazio Kontseiluak ente zuzendaritza kargudunen zerrenda aldatzeko proposamena egin du 2009ko ekainaren 12ko Erabakiz. Korporazioko zuzendari orokorra zuzendaritzako kargudun berri modura identifikatuko da, lehendakariorde betearazlearen eta zuzendari orokorraren antzera.

Horrenbestez, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko ekainaren 30ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

3968

DECRETO 435/2009, de 30 de junio, por el que se aprueba la relación de los cargos directivos del Ente Público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea, adscrito al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

El Decreto 130/1999, de 23 de febrero, por el que se regula el estatuto personal de los directivos de los Entes Públicos de Derecho Privado y de las Sociedades Públicas, establece, en su artículo 3, la competencia del Consejo de Gobierno para la aprobación, mediante Decreto, de la relación de los directivos de los mismos a propuesta de los titulares de los Departamentos a los que se encuentren adscritos Entes Públicos de Derecho Privado.

Esta asimilación o equiparación que se formulaba en el Decreto, se efectuaba mediante el establecimiento de criterios objetivos que permitirían identificar aquellos directivos de cada Ente que habrían de considerarse equivalente a los altos cargos de la Administración.

El precepto citado establece que las propuestas se elaborarán a partir de los acuerdos que los Órganos Rectores o Consejos de Administración de cada Ente Público de Derecho Privado o Sociedad Pública adopten con carácter anual, en los que se identificarán los cargos o puestos que se califiquen como directivos a los efectos de lo dispuesto en el citado Decreto.

En la actualidad la relación de cargos directivos del Ente público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea, viene fijada en el Decreto 385/2005, de 15 de noviembre (BOPV de 24 de noviembre de 20005) donde se contienen los cargos de Director General del Ente y el Vicepresidente Ejecutivo.

Por su parte, el Consejo de Administración del Ente Público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea, mediante acuerdo de fecha 12 de junio de 2009, ha propuesto modificar la relación de los cargos directivos del Ente, identificando al Director General Corporativo como nuevo cargo directivo, junto al Vicepresidente Ejecutivo y al Director General.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, y previa la deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de junio de 2009,

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuan aurreikusitako ondorioetarako, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoko Zuzendaritzako kargudunen zerrenda onartzea, honako karguak jasoz:

– Erakunde Publikoko zuzendari orokorra.

– Lehendakariorde betearazlea.

– Korporazioko zuzendari orokorra

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da uztailaren 12ko 385/2005 Dekretua (azaroaren 24ko EHAA), Garraio eta Herri Lan Sailari atxikitako Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Ente Publikoko Zuzendaritzako kargudunen zerrenda onartzeari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko ekainaren 30ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioko sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

DISPONGO:

Artículo único.- Aprobar la relación de directivos del Ente Público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea, a los efectos previstos en el Decreto 130/1999, de 23 de febrero, que contiene los cargos siguientes

- Director General del Ente Público

- Vicepresidente Ejecutivo

- Director General Corporativo

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el 385/2005, de 15 de noviembre (BOPV de 24 de noviembre) por el que se aprueba la relación de cargos directivos del Ente Público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea adscrito al Departamento de Transportes y Obras Públicas.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.